

ONDORIOAK

Hastera goazen bilera honetan, Batzorde Zientifikoak batzar honen edukia, gure ustez, era txukunean eta sintetikoki islatzen duten hausnarketak azalduko ditu.

Europako Batzordeak ikaskuntza iraunkorrari buruzko memorandumean egindako gomendioak abiapuntutzat eta erreferentziatzat hartuta, eta horren edukia eta egitura kontuan hartuz, Batzorde Zientifikoak bere ondorioak lau gai-bloketan egituratu ditu. Memorandum horren interpretazio eguneratua Angelique Verli andrearen eskutik ezagutu ahal izan genuen batzar honen hasierako txostenean.

Beraz, besterik gabe, gure iritzien eta hausnarketan emaitza jakinaraziko dizuegu.

LEHENENGO BLOKEA

IKASKUNTZA IRAUNKORRAREN FINANTZAZIOA

Ikaskuntza iraunkorra etorkizunean gure gizartean ohiko jarduera izatea bermatu nahi badugu, finantzazazioaren gaia argitu beharreko gakoetako bat da. Batzorde Zientifikoaren iritziz, Wurzburg, Stark eta Larose jaunen txostenetatik, gure hausnarketan erreferentzia izan behar duten lau premisa atera daitezke:

- 1.- Ikaskuntza iraunkorra beti da kostu ekonomikoa, kostu hori erreferentziatzat hartutako agertokiaren arabera aldatzen bada ere.
- 2.- Ikaskuntza iraunkorraren kostuak azken urteotan asko handitu ez badira ere, epe ertain eta luzera, nabarmen handituko dira eta joera hori aldatu egingo dela adierazten duen arrazoirik ez dago.
- 3.- Aurrekoa horrela bada, funtsezkoa da finantzazioan zein instituzio-, entitate- eta pertsona-motak parte hartu behar duen erabakitzea, bai eta zein proportziotan eta neurritan egin behar duten eta zein diren horretarako martxan jarri behar diren mekanismoak era.
- 4.- Ikaskuntza iraunkorraren kultura eta horren adierazpen praktikoa —horretara daramaten ekintzak— jasangarriak izateko, kostu ekonomikoek aurre egiteko modukoak izan behar dute, eta onurak, berriz, argiak. Alegia, kostuaren eta onuraren arteko ekuazioaren emaitzak erabakiko du jardueraren etorkizuna.

Lau premisa horietatik abiatuta, Batzorde Zientifikoak txostengileen artean ondorengo printzipioen gaineko oinarritzko adostasuna ere antzeman du:

- 1.- Gobernuak eta instituzio publikoak ez daude ikaskuntza iraunkorra sustatzeko politika orokor baten kostu guztiak bere gain hartzeko egoeran.
- 2.- Ondorioz, ikaskuntza iraunkorra hainbat eragilek, entitatek eta instituziok elkarren artean finantzatu beharko dute; zenbait kasutan, baita eskatzaile indibidualek ere. Dena den, formula anitzak eta malguak planteatu beharko dira.
- 3.- Ikaskuntza iraunkorrak, ezinbestean, onurak sortu beharko ditu. Horietako batzuk, beste batzuk baino zenbakaitzagoak, baina beharrezkoa da, halaber, emaitzak neurtzeko eta ebaluatzeko ereduak diseinatzea.
- 4.- Eskatzaile-mota guztien artean, ordainaren kultura sustatzea lehentasunezko eta ezinbesteko lana da: konpromiso sendoen gainean eraiki behar da, itzulera-mailetan aurrerapenak eta hobekuntzak egiteko exijentzia barne.

Oinarrizko akordioen gune hori erreferentziatzen hartuta, batzordeak bereziki interesgarritzat jotzen ditu, ikaskuntza iraunkorra finantzatzeko, Stark jaunak egindako proposamenak. Izan ere, eztabaida-gaia horren bueltan kokatzeko oinarri bikaina iruditzen zaizkigu. Horien artean, batzordeak ondorengo hauek nabarmendu nahi ditu:

- 1- Ikaskuntza iraunkorraren zati bat banku bidez finantzatzeko ereduak aztertzea, eta enpresarietzako eta langileentzako mailegu-politikak sustatzea.
- 2- Ikaskuntza bultzatzeko pizgarri fiskalak garatzea.
- 3- Lizentzia-politikak sustatzea, ikaskuntza-ekimenetatik ateratako emaitzak kontuan hartuta.
- 4- Prestakuntza-ekimenen artean lehentasunak ezartzea, eta zenbait kasutan, eskatzaileen artean prestakuntza eraginkorrek eta hautemangarriak sortzen dituzten horiek soilik finantzatzea.
- 5- Eskatzaile batzuentzat pizgarri ekonomikoak bultzatzea, horien adina, gaitasun-maila eta maila soziokulturala kontuan hartuz.

Azkenik, Batzorde Zientifikoak honakoa nabarmendu nahi du, txostengileek egin duten bezala: pizgarri ekonomikoak ez dira nahikoa, berez, ikaskuntza-eskaerak benetan gora egin dezan. Horregatik, aukeratuko diren finantzazio- edo aldi bereko finantzazio-ereduak edozein direla ere, beharrezkoa da azpimarratzea ikaskuntza-eskaeraren hazkundeak, neurri handi batean, informazio- eta zabalkunde-politikei lotuta egon behar duela. Politika horiek honako helburua izan beharko lukete: aldeko jarrerak eta konpromisoa sortzea, dela eskatzaile indibidualena, dela instituzio- eta enpresa-taldeena.

BIGARREN BLOKEA

ESKUALDE-ESPERIENTZIAK

Batzar honetan, zenbait herrialdeetan ikaskuntza iraunkorraren gaian egiten ari diren hausnarketak eta ekimenak ezagutu ahal izan ditugu: Herbehereak, Gales, Salzburgeko eskualdea eta Euskadi. Batzorde Zientifikoak egiaztatu ahal izan duenez, herrialde bakoitzaren lurralde-ezaugarriak, edo kultura- eta gizarte-ezaugarriak edozein direla ere, jarduera-ildo orokor batzuk egon dira. Txostengile guztiek hala azpimarratu dute, eta ondoren nabarmenduko ditugunak dira:

- 1.- Lekuan lekuko ezaugarriak eta beharrak errespetatu behar dira.

Kontuan hartu behar da Europar Batasunak ez duela eskumenik ikaskuntza iraunkorrari eragiten dioten politiketan. Hortik abiatuta, txostengileek honakoa azpimarratu dute: ezagutza eta ikaskuntza iraunkorraren beharrak ezartzen duen logika zentrifugo eta globalari, lekuan lekuko logika zentripetuarekin erantzun behar zaio. Are gehiago, Herbehereen txostenean azpimarratutako gakoaren artean, marko europarrak ezartzea desegokitzat jotzen da.

Horregatik, lehenetsunez, esparru horietako jarduerak hurbileko ingurunearen beharrei lotuta egon behar dute, batzordearen iritziz. Izan ere, horrek izan behar du aukera estrategikoak gidatuko dituen erreferentzia.

2.- Koordinazioa oso garrantzitsua da.

Txostengile guztien iritziz, esperientzia-trukea funtsezko jarduera izan da ezarritako jarduera-ildoak hobetzeko eta berraztertzeke, bai eta hausnarketa bateratua bultzatzeko ere. Zentzu horretan, hainbat esparrutan koordinazio-organoak daudela egiaztatzeaz gain —lokala, eskualdea, nazionala, etab.—, nazioartean ere trukea eta lankidetzaz sustatzeko organismoak bultzatzen ari direla ikusi ahal izan dugu. Esaterako, EARLALL-en kasua: ikaskuntza iraunkorrarekin lotutako politikak berariaz berraztertzen eta alderatzen aritzen den elkarte.

3.- Gobernuak nahitaez inplikatu egin behar dute.

Ezagutu ahal izan ditugun kasu guztietan, ikaskuntza iraunkorra bultzatzeko planak eta ekimenak indartzeko, erabakigarria da gobernuak kontzientzia hartzea. Batzordearen ustez, gobernuaren funtsezko eginkizunetako bat esparruetan sortzen ari diren ekimenak bultzatzea eta horiei erraztasunak ematea da; eta entitateen eta instituzioen parte-hartzea, aldi berean, bultzatu eta koordinatu egin behar den jarduera da.

4.- Helburu partekatuak daude.

Txostengile guztiek arreta berezia eskaini diote ikaskuntza iraunkorraren esparruko jardueren nondik norakoa agindu behar duten helburuak aztertzeari. Planteamendu zehatz eta espezifikoek gain, honako hauek izan dira behin eta berriz aipatu diren erreferentzia nagusiak: ikaskuntza laneko dimentsioaz haratago doan jarduera globalizat hartzea; berdintasun- eta gizarteratze-kuota handiagoak bilatzea; eta berrikuntzaren aldeko benetako apustua. Beraz, batzordeak xedearen gaineko oinarritzko eta funtsezko akordioa egon badagoela nabarmendu nahi du, erabiltzen den bitartekoaren aberastasunaren eta aniztasunaren gainetik.

5.- Hausnarketa egitea ekintzaren aurre-baldintza da.

Txostengileak gobernuetan, parlamentuetan edo lekuan lekuko erakundeetan egin diren hausnarketa-prozesuei buruz aritu dira. Batzordeak honakoa azpimarratu nahi du: ekonomiaren, zientziaren, teknologiaren eta, azken finean, jakintzaren eboluzioak daraman abiadura azkarrak hain aldakorak diren egoerak aztertzeke eta ulertzeke esfortzu etengabea egitera behartzen gaitu. Batzorde Zientifikoak gogorarazi nahi du auto-ezagutzatik soilik dela posible eskura ditugun bitarteko guztiak ezarritako helburuak lortzeke egokitzea eta konprometitzea.

Jarduera-ildo komun horiek zein diren adierazita, batzordeak, berariazko egiturak sortzeke eta garatzeko, txostenetan antzeman daitekeen esfortzu handia nabarmendu nahi du. Bi ekintza-eredu hauteman dira. Zalantzarik gabe, elkarren osagarriak izan daitezke eta batzordeak nabarmendu egin nahi ditu, ikaskuntza iraunkorraren aukera estrategikoak agerian jartzeko.

Galesen eta Euskadiren kasuan, ikaskuntza iraunkorrari buruzko ekimen bateratua bultzatuko duten egiturak sortzeko eta garatzeko kezka antzeman da. Galesen kasuan, horren adierazgarri dira ELW erakundea, herri-partzuergoak edo Careers Wales-ak. Horiek guztiak eskaera identifikatzeko, eragileak koordinatzeko edo ikaskuntza-prozesuak aholkatzeko eta gidatzeko erakundeak dira. Euskadiri dagokionez, Euskadi 2000 Hiru ekimena azpimarratu daiteke, eta, horrekin batera, foru-aldundietako beste ekimen osagarri batzuk, Lanbide Heziketarako Euskal Plana edo helduentzako irakaskuntzaren esparruan egindako jarduerak. Batzordearen ustez, bi kasuetan, oso lotuta daude mota horretako egiturak sortu beharra eta Galeseko eta Euskadiko eboluzio historikoa eta egungo instituzionalizazio-prozesua.

Herbeheretako eta Salzburgeko kasuetan, jarduera norbanakoen garapen pertsonalari eta kultura- eta gizarte-garapenari lotuagoa dagoela antzeman du batzordeak. Izan ere, behar-mota askoz arduratzen diren programa ugari daude, eta, kasu askotan, ez daude lan- eta lanbide-jarduerari lotuta. Bi esperientzia horietan, “ikasteko eskubidearekin” bereziki konprometitutako jarrera antzeman daiteke; batez ere, Salzburgeko eskualdeari dagokionez; beharbada, Austriako Konstituzioak ez duelako arautzen helduen hezkuntzarako eskubide hori. Herbeherei dagokionez, txostengileak “bizitza osoko ikaskuntzak” izan beharko lukeen garrantziari buruz egiten duen oharra nabarmendu nahi luke batzordeak.

Gai-bloke hau azaltzen bukatzeko, esan batzordea asko pozten dela azaldutako esperientziak elkarren osagarriak izan direlako eta horien edukiak helburu bikoitza izan duelako: informatzea eta prestakuntza ematea.

HIRUGARREN BLOKEA

JAKINTZAREN GIZARTEA ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Teknologia berrien erabilerei eta jakintzaren gizartean dituzten potentzialtasunekin lotutako zenbait esperientzia alderatzeko aukera izan dugu. Batzorde Zientifikoak egokitzat jo du ekimen publikotik iritsi zaizkigun ikuspegi eta esperientzia horiek batzen saiatzea; besteak beste: Toscanako eskualdeko TRIO proiektua, Eskoziako hainbat erakundek egindako ekimenak, Eusko Jaurlaritzako ikaskuntza iraunkorreko ataria eta CISCOk E-Learning-en esparruan egindako planteamendu estrategikoak. Batzordeak jarduera-multzo hori sintetizatu nahi luke, ondorengo ideia/indar hauek agerian jarritz:

PROZESUAREKIKO ETA EDUKIAREKIKO ARRETA

Txostengile guztiengan kezka bat bera antzeman daiteke: teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak ikaskuntzaren prozesuari zein edukiari erantzun behar diete. Zentzu horretan, batzordeak funtsezkotzat jotzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologia ikertu beharreko esparrua dela ulertzea. Bestela, jakintza transmititzeko molde berriak baino ez lirakeke izango; zerbitzu hobeak eta merkeagoak eskainiko lituzkete, baina truke-eragile eraginkorrak izateko edukietan arreta berezia jarri behar da, horiek baitira jakintzaren funtsa.

ESKAINITZA ZABALA ETA ANITZA

Zentzu horretan, batzordeak egiaztatu ahal izan duenez, proposamenetan atari zabalak eta anitzak diseinatzeko joera dago, jakintzara iristeko molde oso desberdinak eskaintzeko gai direnak, eta, halaber, trebetasun eta eskumen ugari garatzeko aukera ematen dutenak. Zerbitzuek beste ezeren gainera, erabiltzaileen beharrei eta ezaugarriei erantzuteari eman behar diote lehentasuna.

SAREAK ERABILITZAILEAK BEHAR DITU

Halaber, batzordeak hiritarren gehiengoari sarera sartzeko aukera errazteak duen garrantzia antzeman ahal izan du, ordenagailuen erosketa errazten eta diruz laguntzen duten politikak garatuz (Eusko Jaurlaritzaren kasua), doaneko erreferentzia-zentroak ezarriz (esaterako, Toscanan sustatutako Tele Training Centers zentroak), edo xede bera duen beste edozein formula probatuz. Sarearen potentzialtasunak erabiltzaile-kopuru errealarari lotuta daude zuzenean. Horregatik, batzordeak berriz azpimarratu nahi du oso garrantzitsua dela eskatzaileak ugarituz joan daitezen zirtatuko duten estrategia iraunkorrak egitea.

GUZTIONTZAKO TRESNA ERAGINKORRA

Bestalde, sarearen bidezko ikaskuntza-sistemek kolektibo mota-guztientzat tresna eraginkorra bihurtzeko gaitasuna dutela erakutsi behar dute. Ezin dugu ahaztu gizartearen sektore zabal batzuek ez dutela ohiturarik tresneria telematikoa erabiltzeko, eta, beraz, ez dituztela ezagutzen horien aukerak. Baldintza horietan, E-learning-aren arrakasta, neurri handi batean, eduki eskuragarri eta asimilagarrietan oinarritu behar da. Horregatik, batzordearen iritziz, eskatzaile-mota horien beharrak eta gaitasunak kontuan hartuta soilik lortu ahal izango da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera intentsiboa eta hedagarria izatea.

BATERA, BAINA EZ NAHASTUTA

Erabil daitezkeen tresnak hainbeste eta hain anitzak izanik, erabiltzailea desorientatu egin daiteke. Prestakuntzaren kulturak eta teknologia berrien erabilera gidatuak soilik berma dezakete horien erabilera zuzena, eta horrela bakarrik lortu ahal izango da, hain zuzen ere, eskatzaile askok tresna horiek erabiltzeko gaitasunik ez dutelako sentsazioa desagerraraztea eta tresna horiek betiko ez uztea. Ildo horretan, batzordeak garrantzitsutzat jotzen du zerbitzu-eskaintzaren lehentasunen artean prestakuntza eta aholkularitza sartzea: teknologia berrien erabilera zuzena eta jasangarria bermatuko lukete.

ZUZEN-ZUZENEAN

Dirudien bezala, E-learning-aren potentzialtasun handietako bat eskatzaileen beharretara denboran eta espazioan egokitu ahal izatea bada, batzordearen ustez, ikaskuntza-prozesuaren on line gidaritza eta aholkularitza arrakastaren gakoetako bat izango da. Batez ere, prestakuntza-jardueraren hasierako egokitze- eta pertsonalizatzen denboraldietan, zerbitzuak eskaintzen dituztenek oso kontuan hartu behar dute eskatzaileen beharrei denbora errealean erantzun ahal izatea.

SINERGIAK BULTZATZEA

Azkenik, batzar honen beraren esperientziak erakusten duenez, entitate eta erakundeen arteko lankidetzaren eta kooperazioaren bidez, jakintza aberastu egiten da. Horregatik, batzordeak informazioa eta jakintza trukatzeko aukera ematen duten jarduerak indartu beharra azpimarratu nahi du. Transmittitutako esperientzia orok informazioa eta datuak balore gehigarri eta jakintza bihurtzen dituzte.

LAUGARREN BLOKEA

IKASKUNTZA IRAUNKORRA ETA INTEGRAZIOA

Gaurko jardunaldian —martxoaren 27a, osteguna—, helduen esparruko hainbat esperientzia aztertu ditugu.

Helduen hezkuntza garrantzitsua da, kasurik gehienetan, zenbait kolektiborentzat oinarritzko prestakuntza lortzeko aukera bakarra delako. Hain zuzen ere horregatik, Batzorde Zientifikoaren ustez, helduentzako hezkuntza estuki lotua dago kultura- eta lan-integrazio helburuei eta, azken finean, gizarteratzeko helburuari.

Ezagutu ahal izan ditugun esperientziek hori erakutsi digute: ikaskuntza izaera iraunkorreko jardueratzat hartzen duen kontzepzio modernoaren barruan, helduentzako irakaskuntza berariazko ezaugarri batzuk dituen modalitatea da. Horregatik, azken gaiatal honetan, Batzorde Zientifikoak ezaugarri horiek nabarmentzeko sintesi-ahalegina egin nahi izan du. Horretarako, batzordeak txostengileen ekarpenak ondorengo ondorio-dekalogoaren bidez antolatu ditu:

1.- HELBURUAK.

Helduentzako hezkuntzak hiru helburu nagusi ditu:

- a) Prestakuntza-maila apalenerako kolektiboen gizarteratzea eta lan-munduratzea. Horretarako, oinarritzko gaitasunak lortzeko aukerak emango zaizkie, auto-ikaskuntza sustatuko dira, eta baloreak eta jarrerak jakintzarantz bideratzen saiatuko gara.
- b) Heldu landunen gaitasunak eguneratzea eta areagotzea, bakoitzaren beharrei erantzunez, lan-merkatutik behar baino lehen kanporatuak izan ez daitezen, prestakuntza eskasa edo ez nahikoa dela eta.
- c) Pertsonen eta jakintzaren kudeaketa eraginkorrean, erakundeekin lankidetzan aritzea, eta erakunde orok jakintza berria sortzeko duen gaitasuna bultzatzea.

2.- HARTZAILEAK

Bi hartzaile-talde nagusi bereiz daitezke:

- a) Oinarritzko prestakuntzan gabezia nabarmenak dituzten langabetuak edota langile aktiboak. Oro har, jakintzaren balio indibidual eta sozialaren informazio eta kontzientzia txikia dute.
- b) Oinarritzko prestakuntza-maila ertaina/altua duten langabetuak edota langile aktiboak, gaitasun pertsonalari edo profesionalari eutsi edo horik areagotu egin behar dituztenak.

Batzordeak egiaztatu duenez, prestakuntza-beharra herritarren oinarritzko prestakuntza-mailekiko alderantziz proportzionala bada ere, prestakuntza-eskaera handiagoa da,

oraindik, ondoen prestatutako kolektiboetan. Horrek sustapena —euren buruarena edota lanekoa— gehien behar duten kolektiboentzako informazioa eta baliabideak eskuratzeko sistemak hobetu beharra adierazten du.

3.- ESTRATEGIAK

Aurkeztutako ponentzien bidez, Batzorde Zientifikoak aniztasun handia dagoela egiaztatu ahal izan du, besteak beste, honako alorretan: eskaintza-mota, parte hartzen duten erakunde, irakaskuntza/ikaskuntza-eredu eta finantzazioan ari diren eragilean alorretan.

Batzorde Zientifikoaren ustez, estrategia eta tresna aniztasun hori ez da arazo; aldiz, onura handiak ekartzen ditu: prestakuntza-lekuak zabaldu eta dibertsifikatzen ditu, partekatatu eta alderatu daitezkeen esperientziak sortzen ditu eta hartzaile-kolektibo heterogeneo bati ikaskuntzarako aukera areagotu eta errazten dio.

4.- SAREAK

Helduen hezkuntzaren —eta ikaskuntza iraunkorrek duen erlazioaren— ikuspegitik, batzordearen aburuz, funtsezko helburua da prestakuntza eta jakintza hobetzeko xedea duten produktuen eta zerbitzuen eskaintzari buruzko koordinazio- eta informazio-kanalak egotea. Sareak ez dute egituren eta burokraziaren hazkundera bultzatu behar. Informazioaren aro honetan, sareak lankidetzarako eta trukerako tresnak dira, balio zenbatesinekoak. Sareak sortzea eta garatzea, berrikuntza- eta malgutasun-iturri iraunkorrak ziurtatzea da, eta, aldi berean, informazioa jakintza berria bihurtzen dute.

5.- AGERTOKIAK ETA MODUAK

Gaur egungo gizarteetan, helduentzako irakaskuntza hainbat leku eta egoeratan gerta daiteke, eta horiek hartzaileen ezaugarrien zein ezarritako helburuen arabera ezarri behar dira. Ikaskuntza hainbat bidetatik lor daiteke: hezkuntza-sistema formaletako erakunde bidez; erakunde independenteen bidez (espezializazio-maila edozein dela ere); norberaren lan-esperientziaren bidez, edo behar indibiduali egokitutako ikaskuntza-prozesuen bidez. Beraz, auto-ikaskuntza zuzeneko prestakuntza-jarduerekin eta telematika bidezko aholkularitza- eta prestakuntza-ereduekin konbinatu daiteke.

Batzordearen ustez, prestakuntza emateko leku eta egoera desberdinak eraikitze eta bateragarri izateko aukera horrek ez ditu ikaskuntza-kanalak desitxuratzen eta sakabanatzen. Aldiz, ikaskuntza-prozesuen hedapena eta horiek eskuragarri izateko aukera nabarmen handitzen ditu, bai eta horietan parte-hartzen dutenen aukera potentzialak ere.

6.- ERAGILEAK

Txostenetan, ardurak partekatuta egon behar dutela adierazi dute. Hain zuzen ere, hauen artean: erakunde publikoen eta pribatuen, hezkuntza-, enpresa- eta kultura-entitateen, eta araututako eta ez-araututako prestakuntza-zentroen artean. Batzordeak, beraz, “ardura partekatua” kultura hori sustatzea garrantzitsua dela adierazi nahi du. Izan ere, arazo komunak daudenez, instituzioetako, enpresetako eta gizarteko hainbat eragilek parte-hartzeak oinarritzeko helburua —ikaskuntza bultzatzeko eta errazteko helburua— helburu anitz bihurtzen du.

7.- IKUSPEGIAK

Batzorde Zientifikoak helduentzako hezkuntzaren kudeaketan ikuspegi desberdinak garatu behar direla uste du, hori bai, jarduera horren gaitasun integratzailea ahaztu gabe. Batzordearen ustez, helduen jarduerak eta ikaskuntzaren ildoak ezarri behar dituzten ikuspegiak hiru dira.

- a) Biztanleria helduarengan, kultura-, balio- eta jarrera-aldaketa sustatzea; izan ere, oinarrikoa da aldaketaren zentzua eta, beraz, ikaskuntza iraunkorraren beharra eta abantailak ulertzea.
- b) Eskaintza eta ikaskuntza-prozesuak eskatzaileen beharretara eta eskakizunetara egokitzea, eta horiei erantzutea. Eta, hori guztia, erantzuna hobea eta eraginkorragoa izan dadin, eta eskatzaileen kolektiboa ere kontuan hartu beharreko jakintza-iturri potentziala delako.
- c) Berrikuntza etengabearen aritzea, eta hori produktu- eta zerbitzu-eskaintzan islatu dadila.

8.- EDUKIAK

Jakintzaren antolaketa modernoak aldaketa etengabearen dagoen inguruneak behar eta eskatzen dituen jakintzen eraldaketa etengabeari erantzun behar dio. Testuinguru horretan, batzordearen ustez, edukiak nolabait egonkorak diren curriculum-multzotan antolatzea ez da, jada, erreferentzia egokia. Edukien kudeaketak eta antolaketak, gutxienez, ondorengo eskakizunei erantzun beharko die:

- a) Ikaskuntza-prozesuan erabiliko diren mekanismoei, teknologia berriei eta horien potentzialtasunei arreta berezia jarritz.
- b) Eskatzaileen ezaugarriei, indibidualki eta taldeka hartuta. Horien artean, aldagai soziokulturalak, adina eta motibazioa nabarmentzen dira.
- c) Ikaskuntza-prozesu bakoitzean lortu nahi diren helburuei.

9.- FINANTZAZIOA

Batzordearen iritziz, komenigarria da helduen hezkuntzaren finantzazioaren ardura ez egotea erabat erakunde publikoen esku. Dena den, erakundeen eta entitateen parte-hartzea jardueren xedeen araberakoa izan beharko da. Betiere, lehentasuna emango zaio eskatzaileentzako eskaintza-sistema plurala eta irekia bermatzeari, kontuan izanik eskatzaileak oso heterogeneoak direla.

10.- EMAITZAK

Batzordeak ohartarazi nahi du, gure gizarteetan jakintzak dituen ezaugarri bereziak direla eta, emaitzaren zati handi bat antzeman ezina izango dela epe motzera. Hala ere, funtsezkoa da prestakuntza-maila apaleneko eskatzaileei ikaskuntza-prozesuetan parte-hartzeko aukera erraztea, lan-merkatutik behar baino lehen kanporatuak izan ez daitezen eta herritarren gehiengoaren gizarteratzea eta lan-munduratzeko bultzatzeko.

Azkenik, Batzorde Zientifikoak aurkeztutako lanen kalitatea nabarmendu nahi du, txostengileei egindako ahalegina eskertu nahi die, eta zuei guztioi zuen parte-hartzea eta interesa. Honakoarekin, ondorio hauen aurkezpena bukatutzat jotzen dugu, ikaskuntza

iraunkorraren kontzeptuak iradokitzen digun aberastasuna eta potentzialtasuna bost
ideia hauetan laburbilduta:

KULTURA
BERRIKUNTZAREKIN KONPROMISOA
BEHARRA
GIZARTE-ONURA
ERRONKA KOLEKTIBOA

Mila esker.-